Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko irailaren 14a, ostirala — 178 — Viernes, a 14 de septiembre de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZESTOAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal Batzarrak, 2018ko ekainaren 28an eginiko bilkuran, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza onartzeko proposamena onartu eta 2018ko uztailaren 24ko 142. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean egon ondoren, ez erreklamaziorik, ez iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betiko onartuta geratu da.

Zestoa, 2018ko irailaren 10a.—Alkatea. (6127)

*Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza.*

SARRERA

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko Euskal Autonomia Erkidegoko 6/1993 Legeak eta gainerako xedapen aplikagarriek Udal honi esleitzen dizkioten ahalmenen indarrez diktatu da.

AZALPENA

Ordenantza honen asmoa da: mota guztietako animalien edukitzea arautzea, bai konpainiakoena bai konpainiakoak ez direnena, animalien eta pertsonen arteko bizikidetza bateratzeko helburuz, ingurunearen osasunerako eta pertsona nahiz ondasunen lasaitasun, osasun eta segurtasunerako izan daitezkeen arriskuak saihestuz.

Halaber, animaliek tratuaren, higienearen, elikaduraren, babesaren, erakusketaren, garraioaren eta identifikazioaren ikuspuntutik jaso beharreko gutxienezko arreta ere arautzen du.

Halaber, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoa arautzen da, dagokion lizentzia lortzeko neurriak, eta errolda erregimen baldintza orokorrak.

Animaliak aldi batez edukitzen dituzten establezimenduek bete beharreko arauak ezartzen ditu, bai eta albaitaritzako kontsultategi, klinika zein ospitaleen eta animalia saltokien ezaugarriak eta baldintzak ere.

Azkenik, ikuskapen eta zaintza neurriak zehazten ditu, arauhausteak eta zigor aplikagarriak sailkatzen ditu eta zehapen prozedura betearazlea ezartzen du.

I. TITULUA

HELBURUA, DEFINIZIOAK ETA EZARPEN EREMUA

I. KAPITULUA. EZARPEN EREMUA ETA HELBURUAK

*1. artikulua.*

Ordenantza honen ezarpen eremu geografikoa Zestoako udalerri osoa da.

## AYUNTAMIENTO DE ZESTOA

*Anuncio*

Aprobado por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión de 28 de junio de 2018, la Ordenanza Municipal sobre tenencia y protección de animales, y expuesto al público mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa núm. 142, de 24 de julio de 2018, sin que durante el período de información pública se hayan formulado reclamaciones ni observaciones, ha quedado definitivamente aprobado.

Zestoa, a 10 de septiembre de 2018.—El alcalde. (6127)

*Ordenanza municipal reguladora de la tenencia y protección de animales.*

INTRODUCCIÓN

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias atribuidas al Ayuntamiento por la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local y la Ley de la Comunidad Autónoma del País Vasco 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, así como demás disposiciones aplicables.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Ordenanza pretende regular la tenencia de toda clase de animales, tanto sean de compañía o no, a fin de armonizar la convivencia de los mismos y las personas, evitando los posibles riesgos para la sanidad ambiental así como la tranquilidad, salud, seguridad de personas, bienes y otros animales.

Regula, asimismo, las atenciones mínimas que han de recibir los animales desde el punto de vista del trato, higiene y alimentación, protección, exhibición, transporte e identificación.

Asimismo se regula el régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos, contemplando la sujeción a licencia, condiciones generales de la tenencia y régimen de registros.

Establece las normas que han de cumplir los establecimientos dedicados a mantenerlos, los requisitos y características de los consultorios, clínicas y hospitales veterinarios y de los locales destinados a la venta de animales.

Finalmente, fija las medidas de inspección y vigilancia, tipificar las infracciones y las sanciones aplicables así como establecer el procedimiento ejecutivo sancionador.

TÍTULO I

OBJETIVOS, DEFINICIONES Y ÁMBITO

CAPÍTULO I. ÁMBITO DE APLICACIÓN Y OBJETIVOS

*Artículo 1.*

El ámbito geográfico de la presente Ordenanza abarca a todo el término municipal de Zestoa.

EK\CV GAO-I-2018-06127

*2. artikulua.*

Ordenantza honen xedea da udalerrian dauden etxeko animaliak, animalia etxekotuak eta animalia basatiak babesteko, bizikide izateko, edukitzeko, erabiltzeko, erakusteko eta merkaturatzeko arauak jartzea, udalerrian zentsatuak edo erroldatuak egon ala ez egon, jabe nahiz edukitzaileak bizi diren lekuan bizi direla.

Horretarako animaliek tratuari, higieneari, zainketari, identifikazioari eta babesari dagokionez jaso beharreko arreta minimoak zein diren ezartzen da eta, halaber, establezimendu berezituetan, osasun-arretan, merkaturatzerakoan eta saltzerakoan bete beharreko arauak ere ezartzen dira.

Honako arlo hauek ordenantza honen ezarpen eremutik kanpo daude, bestelako araudi berezia dutelako:

a) Ehiza.

b) Arrantza.

c) Basoko faunaren babesa eta kontserbazioa bere ingurune naturalean.

d) Zezenekin eta/edo bigantxa, idi eta zaldiekin egiten diren festak.

e) Animaliak ikerkuntza eta bestelako helburu zientifikoetarako erabiltzea.

f) Hegazti-tiro lehiaketak.

g) Hainbat herri-kirol, elementu nagusia etxeko animaliak direnean.

h) Nekazaritza ustiapenak.

II. KAPITULUA. DEFINIZIOAK

*3. artikulua.*

1. Konpainiako animalia:

Gizakiak mantentzen duen animalia, batez ere etxean, etxeko animalia zein animalia basatia izan, eta jostatzeko, hezteko nahiz apaintzeko, gordetzeko edo babesteko helburuz edukitzen dena, inolako irabazi asmorik gabe.

2. Ustiaketarako animalia:

Gizakiak irabazi asmoarekin mantentzen dituen animaliak, irabaziak zuzenean animalien ustiaketatik lortzen direla nahiz haiengandik eskuratutako produkzioen ustiaketatik lortzen direla.

3. Basa animalia gatibutzan:

Berez basa-animaliak izanda gatibutzan jaio diren animaliak edo naturan libre jaio arren, gatibutzan dauden animaliak, baina gatibutzaren helburua ez bada animalia etxekotzea edo heztea.

4. Animalia abandonatua:

Animalia abandonatutzat joko dira jabe edo helbide ezagunik ez dutenak, animaliaren datuak jakiteko sistemarik ez dutenak eta erroldan ez daudenak.

Era berean, animalia abandonatutzat joko dira ondorengo egoeretan daudenak: erroldan egon arren animaliaren jabeak ez badu arautegiak ezarritako epe barruan haren desagertzearen salaketarik egin, edota bide publikoan jaberik gabe dabilena.

5. Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak:

Ordenantza honi dagokionez, eta segurtasun publikoari buruzko legerian xedaturikoa baztertu gabe, ondoko hau hartuko da «baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalia» gisa: Udal agintari eskudunek banaka halakotzat jo eta hala katalogaturiko txakurra. Horretarako irizpide objektibo batzuk hartuko dira kontuan, hala nola salaketarik jaso izana, portaera ol-

*Artículo 2.*

La presente Ordenanza tiene por objeto establecer normas para la protección, convivencia, posesión, utilización, exhibición y comercialización de los animales domésticos, domesticados y salvajes que se encuentren en el término municipal, con independencia de que se hallen o no censados o registrados en él y sea cual fuere el lugar de residencia de l@s dueñ@s o poseedor@s.

Para ello fija las atenciones mínimas que han de recibir los mismos en cuanto al trato, higiene, cuidado, identificación, protección, y establece las normas sobre su estancia en establecimientos especializados, atención sanitaria, comercialización y venta.

Quedan fuera del ámbito de esta Ordenanza y se regirán por su normativa propia:

a) La caza.

b) La pesca.

c) La protección y conservación de la fauna silvestre en su medio natural.

d) Los festejos con toros y/o vaquillas, bueyes y caballos.

e) La utilización de animales para experimentación y otros fines científicos.

f) La celebración de competiciones de tiro a aves en vuelo.

g) La celebración de las modalidades de deporte rural vasco que conlleven la utilización, como elemento básico, de animales domésticos.

h) Las explotaciones agrarias.

CAPÍTULO II. DEFINICIONES

*Artículo 3.*

1. Animal de compañía:

Todo aquel mantenido por el ser humano, principalmente en su hogar, que se posee con un objetivo lúdico, educativo u ornamental, de guarda o defensa, ya sea doméstico o silvestre, sin que exista actividad lucrativa alguna.

2. Animal de explotación:

Todos aquellos que, adaptados al entorno humano, sean mantenidos por el ser humano con fines lucrativos, bien de los animales en sí o de las producciones que generan.

3. Animal salvaje en cautividad:

Aquellos que, habiendo nacido silvestres o que siendo de naturaleza silvestre hayan nacido en cautividad, son sometidos a condiciones de cautiverio pero no de aprendizaje para su domesticación.

4. Animal abandonado:

Se considera animal abandonado aquel que no tenga dueñ@, ni domicilio conocido, ni posea sistema de identificación que permita conocer estos datos, así como aquel que no se encuentre censado.

Tendrá igualmente la consideración de animal abandonado aquel que, aun estando censado, no se haya denunciado su desaparición en los plazos que la normativa establece, o que circule por la vía pública sin estar acompañado por sus propietari@s.

5. Perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia:

A los efectos de la presente Ordenanza, y sin perjuicio de lo que prevea la legislación aplicable en materia de seguridad pública, se considerará «perro sometido a condiciones especiales para su tenencia», a todo animal de la especie canina, que con carácter individual, haya sido catalogado como tal atendiendo a criterios objetivos tales como haber sido objeto de denuncia por

EK\CV GAO-I-2018-06127

darkor edo erasokorra agertu izana, edo pertsona eta/edo animalientzako arriskua agerian jartzen duen beste edozein egoera.

6. Arriskutsua izan daitekeen animalia:

Oro har, fauna basatiko animaliak izanik etxeko edo konpainiako animalia gisa erabiltzen direnak, beren oldarkortasuna alde batera, pertsona edo beste animaliei heriotza edo lesioak eta gauzei kalteak eragiteko ahalmena dutenak.

Beren oldarkortasuna, tamaina edo barailaren potentziarengatik pertsona edo beste animaliei heriotza edo lesioak eta gauzei kalteak eragiteko ahalmena duten etxeko edo konpainiako animaliak ere, bereziki txakurrak, arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira. Arauz zehaztuko da zein diren. (101/2004 Dekretuko I. eta II. eranskinetan zehaztutako txakur espezieetakoak).

II. TITULUA

ANIMALIAK EDUKITZEKO LEGE-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

*4. artikulua.*

Orokorrean baimendu egiten da etxe partikularretan konpainiako etxeko animaliak edukitzea, baldin eta etxeak, etxeko instalazioek eta animalien kopuruak zein tamainak horretarako aukera ematen badute osasunaren eta garbitasunaren aldetik, eta auzokideentzat, animalientzat edo beste edonorentzat arrisku egoerarik edo eragozpenik sortzen ez baldin bada.

Debekatua dago balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, zabaltzetan, lorategietan edota bestelako edozein lokaletan animaliak edukitzea, estabulatzea edo erdi estabulatzea, baldin eta animaliek auzokide zein oinezkoei beren usain, zikinkeria, ulu edo zaunkekin traba egiten badiete.

Era berean debekatua dago txakurrak eremu urbanizaezinean dauden baratze eta antzekoetan edukitzea, eremu horiek baserri edo landetxeen erabilerarako lursail itsatsiak ez badira behintzat.

*5. artikulua.*

Debekatua dago hirigunean ustiaketa-animaliak hazteko helburuz edukitzea, eta ezin izango dira estabulatu etxe partikular, terraza, zabaltza, ganbara, soto, trasteleku, bodega, patio eta antzekoetan.

*6. artikulua.*

Basa animaliak parke, zoologiko edo antzeko helburua duten bestelako lekuetatik kanpo edukitzeko indarrean dagoen legeria bete beharko da kasu bakoitzean, eta jabea arduratuko da auzokideentzat inolako arrisku edo eragozpenik ez sortzeaz. Horregatik debekatua dago animalia hauek solte lagatzea gune irekietan edo jendea dabilen lokaletan.

*7. artikulua.*

Animalien jabeak edo edukitzaileak behartuta daude animaliei janari eta zainketa egokia ematera, gaixotasunen tratamendua dela zein osabidea dela, animaliak ahalik eta ongien bizitzeko, bai eta agintariek ezarritako administrazio neurriak zein osasunaren prebentzioari buruzkoak betetzera ere. Horiez gain, animalia mota bakoitzak dauzkan ezaugarrien araberako bizitokia eman beharko diete jabeek animaliei.

*8. artikulua.*

Animaliak ondo babestuak egon daitezen, erabat debekatuak daude:

parte de particulares, manifestar un comportamiento agresivo, o cualquier otra circunstancia que ponga de manifiesto la peligrosidad del animal respecto a las personas y/o animales.

6. Animal potencialmente peligroso:

Genéricamente se considerarán animales potencialmente peligrosos todos los que, perteneciendo a la fauna salvaje, siendo utilizados como animales domésticos, o de compañía, con independencia de su agresividad, pertenecen a especies o razas que tengan capacidad de causar la muerte o lesiones a las personas o a otros animales y daños a las cosas.

También tendrán la calificación de potencialmente peligrosos, los animales domésticos o de compañía que reglamentariamente se determinen, en particular, los pertenecientes a la especie canina, incluidos en una tipología racial, que por su carácter agresivo, tamaño o potencia de mandíbula, tengan capacidad de causar la muerte o lesiones a las personas, a otros animales y daños a las cosas. (Animales de la especie canina determinados en los anexos I y II del Decreto 101/2004).

TÍTULO II

RÉGIMEN JURÍDICO DE LA TENENCIA DE ANIMALES

CAPÍTULO I. NORMAS GENERALES

*Artículo 4.*

Se autoriza, con carácter general, la tenencia de animales domésticos de compañía en los domicilios particulares, siempre que las circunstancias del alojamiento, la adecuación de las instalaciones así como el número y volumen de los animales lo permitan, tanto desde el punto de vista higiénico-sanitario como por la inexistencia de situación de peligro o de molestia para los vecinos, otras personas en general o para el animal mismo.

Queda prohibida la tenencia habitual, estabulación o semiestabulación de animales en balcones, garajes, pabellones, sótanos, azoteas, jardines o cualquier otro local, cuando éstos ocasionan molestias objetivas por sus olores, ruidos, suciedad, aullidos o ladridos a los/as vecinos/as o transeúntes.

Del mismo modo queda prohibida la tenencia de perros en huertas o similares situados en suelo no urbanizable, excepto en las comprendidas en las parcelas anexas y de uso de caseríos o viviendas rurales.

*Artículo 5.*

Queda prohibida, dentro de la zona urbana, la posesión de animales de explotación para su cría, impidiéndose su estabulación en domicilios particulares, terrazas, azoteas, desvanes, garajes, sótanos, trasteros, bodegas, patios o similares.

*Artículo 6.*

La tenencia de animales salvajes fuera de los parques y zoológicos o áreas destinadas al efecto, estará sometida a la legislación aplicable en cada momento a este caso, responsabilizándose el/la propietario/a de la total ausencia de peligros y molestias al vecindario. A tal efecto, se prohíbe dejar sueltos a estos animales en espacios exteriores o locales abiertos al público.

*Artículo 7.*

Los/as propietarios/as o tenedores de animales estarán obligados a proporcionarles la alimentación y los cuidados adecuados para su óptimo bienestar, tanto en el tratamiento de sus enfermedades como en la aplicación de curas, así como cumplir las medidas administrativas y sanitarias preventivas que las Autoridades dispongan. De igual forma, les proporcionarán un alojamiento acorde con las exigencias propias de su especie.

*Artículo 8.*

Para una eficaz protección de los animales, queda expresamente prohibido:

EK\CV GAO-I-2018-06127

1. Animaliak bortizkeriaz edo substantzia toxikoak emanez akabatzea, bide zein gune publikoetan substantzia toxikoak lagatzea eta norbere zein inoren animaliak zauritzea, ankerkeriaz tratatzea edo tratu txarrak ematea, etxeko animalia, animalia etxekotua zein basa animalia izan.

2. Animaliak antzerki, diskoteka, pelikula edo propaganda jardueretan erabiltzea, baldin eta erabilera horren ondorioz, animaliak sufritu edo mina hartzen badu edota degradatzen bada.

3. Animalien arteko borroka-saioak, publikoak zein pribatuak, baldin eta bertan animaliak akabatu, zauritu, izutu eta erasotzen badira.

4. Animaliei gorputz atalen bat moztea, ez bada, behintzat, albaitariaren kontrolpean helburu terapeutikoz, arrazoi funtzionalez edo arrazaren ezaugarriei eusteko egina.

5. Espresuki debekatzen da animaliak abandonatzea.

6. Adin txikikoei animaliak saldu, laga edo ematea.

7. Animalien salmenta ibiltaria, baimendutako merkatu eta azoketan izan ezik.

8. Animaliak administrazioaren kontrolik gabe klinika eta laborategiei saltzea.

9. Alkohola, drogak eta botikak ematea edo kalte fisikoak zein psikikoak eragin diezazkien edozein manipulazio artifizial egitea, bereziki lehiaketetan errendimendua handitzeko bada.

10. Espezie babestuetako animaliak saltzea, edukitzea eta erakustea, arlo honetako legeria kontuan izan gabe.

11. Animaliak ematea saritzat, ordainketatzat edo erosketa baten konpentsazio oparitzat.

*9. artikulua. Kaleko animaliak.*

1. Animaliek gizakioi eta ondasunei eragin liezazkiguketen eragozpenak edota arriskuak saihesteko, herritarrek udal osasun zerbitzuei jakinaraziko diete kaleko animaliak edo abandonatutako animaliak daudela.

2. Debekatuta dago bide publikoan eta orubeetan hegazti, txakur, katu eta kaleko beste edozein animaliari janaria ematea (baimenduta izan ezik). Idatz zati honetan jasotakoa ez betetzea arau-haustea izango da, Ordenantza honetako 64. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3. Hiri-habitateko edo kontrol gabeko animalia-espezieen ugalketak hala justifika dezakeenean, udal agintariek beharrezko neurriak hartuko dituzte animalia horien populazioa kontrolatzeko.

## II. KAPITULUA. TXAKUR ETA KATUEI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK

*10. artikulua.*

Txakur jabe edo edukitzaileek derrigorrez identifikatu eta erroldatu beharko dituzte beren txakurrak, txakurra jaio edo erosi den momentutik hilabeteko epean. Berdin egingo da bestelako edozein konpainiako animalia bada ere.

Animaliek beren zentsu identifikazioa eraman beharko dute beti nahitaez.

Animalia ez erroldatzea, edo epez kanpo egitea, arau haustea izango da animalia babesteari buruzko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoari jarraituz.

*11. artikulua.*

Identifikaziorako txakurrari lepoaren ezkerraldean mikrotxipa edo osagai elektroniko bat jarriko zaio. Mikrotxip hori albai-

1. Causar la muerte mediante actos de agresión o suministro de sustancias tóxicas; el depósito de sustancias tóxicas en vías y espacios públicos; causar daños o cometer actos de crueldad, malos tratos a los animales, propios o ajenos, domésticos, domesticados o salvajes.

2. La utilización de animales en teatros, salas de fiestas, filmaciones o actividades de propaganda que suponga daño, sufrimiento o degradación del animal.

3. Todos los actos públicos o privados de peleas de animales, o parodias en las cuales se mate, hiera, atemorice u hostigue a los animales.

4. Practicar mutilaciones, excepto las controladas por veterinario en caso de necesidad terapéutica, bien por exigencia funcional o para mantener las características de la raza.

5. Queda expresamente prohibido el abandono de los animales.

6. La venta, cesión o donación de animales a menores de edad.

7. La venta ambulante de todo tipo de animales fuera de los mercados y ferias debidamente autorizadas.

8. La venta de animales a laboratorios o clínicas sin control de la Administración.

9. Suministrarles alcohol, drogas o fármacos, o practicarles cualquier manipulación artificial que pueda producirles daños físicos o psíquicos, y, en particular, cuando sea para alterar su rendimiento en una competición.

10. La venta de animales pertenecientes a especies protegidas, así como su posesión y exhibición, fuera de los términos de su legislación específica.

11. Hacer donación de animales como premio, recompensa o regalo de compensación por otras adquisiciones.

*Artículo 9. Animales vagabundos.*

1. Con el fin de evitar las molestias y/o riesgos que los animales pueden ocasionar a personas y bienes, los/as ciudadanos/as comunicarán a los servicios sanitarios municipales la presencia de animales vagabundos o abandonados.

2. Queda prohibido facilitar alimento en la vía pública y solares a aves, perros, gatos, y demás animales vagabundos, sin autorización. El incumplimiento de este apartado será considerado infracción de acuerdo a lo establecido en el artículo 64 de la presente Ordenanza.

3. Cuando la proliferación de especies animales de hábitat urbano e incontrolado, lo justifique, se adoptarán por las autoridades municipales las acciones necesarias que tiendan al control de su población.

## CAPÍTULO II. DISPOSICIONES ESPECÍFICAS SOBRE PERROS Y GATOS DE COMPAÑÍA

*Artículo 10.*

Las personas propietarias o poseedoras de perros están obligadas a identificarlos y censarlos a partir del mes de nacimiento o adquisición. Estas obligaciones podrán hacerse extensivas a otros animales de compañía.

El animal deberá llevar necesariamente su identificación censal, de forma permanente.

No censar al animal o hacerlo fuera de plazo será infracción de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27.1.a de la Ley de Protección de los Animales.

*Artículo 11.*

La identificación se efectuará mediante la implantación en la parte lateral izquierda del cuello del perro de un microchip o ele-

EK\CV GAO-I-2018-06127

tari ofizial batek edo horretarako gaitua dagoen albaitari pribatu batek jarriko dio. Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan ezarritakoari jarraituz egingo da; horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektrikoen erabilera eta ezar litekeen beste edozein arautan xedatutakoa erregulatzen da (101/2004 dekretuan xedatzen den moduan).

*12. artikulua.*

Udalaren ardura da Zestoako udalbarrutian txakurren errolda egitea eta kudeatzea. Errolda horretan erregistraturik egongo dira udalbarrutian bizi diren txakur jabe edo edukitzaileen txakur guztiak eta baita udalerrian erroldaturik egon gabe ere udalerrian barrena ibili ohi direnak.

Errolda horretan, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) haiek identifikatzeko jasota dauden datuez gain animalia edukitzeagatik izenpetutako erantzunkizun zibileko aseguruari buruzko datuak ere jaso beharko dira.

Udala datu basea urtero eguneratua edukitzeaz eta datuen ezkutukotasunaz arduratuko da.

*13. artikulua.*

Animalia identifikatzerakoan, albaitari gaitu jarduleak Txakurraren Kartilla Ofiziala eta animaliaren identifikaziorako agiri bat beteko ditu. Agiri horren bidez, batetik, identifikatu egingo da txakurra; eta bestetik, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren ondorioz sortutako EAEko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) animalia erregistratzeko eskaria egingo da.

*14. artikulua.*

Animalien jabeek edo edukitzaileek albaitariari jakinarazi beharko diote heriotzagatik izandako bajak, eta albaitariak horren berri emango dio Udalari edo dagokion Lurralde Erregistroari, heriotza gertatzen den egunetik kontatzen hasita 10 eguneko epean.

*15. artikulua.*

Animalia lapurtu edo desagertuz gero, salaketa jarri beharko da 24 orduko epe barruan eta hori egin ondoren, gertatutakoaren berri zuzenean emango zaio Lurralde Erregistroari, 10 eguneko epean.

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien kasuan, animalia lapurtu edo galduz gero salaketa jarri beharko da, goian aipatutako epean, eta jabeak arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erroldako arduradunari gertatutakoaren berri eman beharko dio, gehienez ere 48 orduko epean.

*16. artikulua.*

Txakur jabeak edo edukitzaileak etxez aldatzen badira edo txakurraren jabetza eskualdatzen badute, 10 eguneko epea izango dute albaitariari eta dagokion Lurralde Erregistroari horren berri emateko.

*17. artikulua.*

Animaliaren jabeak ordainduko ditu identifikazioa, osasun kartilla eta erroldan izena ematea.

*18. artikulua.*

Ordenantza honen arabera abandonatutzat jotzen diren animaliak dagokion udal zerbitzuak edo horretarako kontratatutakoak jasota edukiko dituzte.

*19. artikulua.*

«Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak» moduan sailkaturiko txakurren kasuan, derrigorrezkoa da hala

mento electrónico. Dicho microchip será implantado por veterinario oficial o veterinario privado habilitado a estos efectos. La implantación del microchip se llevará a cabo de conformidad con lo dispuesto en la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se regula la utilización de métodos electrónicos de identificación animal en la Comunidad Autónoma del País Vasco (tal y como dispone el Decreto 101/2004).

*Artículo 12.*

La elaboración y gestión del censo canino en el término municipal de Zestoa es una responsabilidad municipal. En dicho censo quedarán registrados todos aquellos perros cuyos propietarios o poseedores residan en el término municipal, así como aquellos perros que aun no estando censados en el municipio, deambulen de forma habitual por él.

En el citado censo deberán constar, además de los datos que actualmente se consignan para su identificación a través del registro general de identificación de animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (R.E.G.I.A), aquellos otros relativos al seguro de responsabilidad civil suscrito por la tenencia del animal.

El Ayuntamiento se encargará del mantenimiento de la base de datos con periodicidad anual y se responsabilizará de la confidencialidad de los datos.

*Artículo 13.*

Al identificar al animal, el veterinario habilitado actuante rellenará la Cartilla Oficial Canina así como un documento de identificación y solicitud de inscripción en el Registro General de Identificación de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en adelante R.E.G.I.A., creado en virtud de la Orden de 5 de mayo de 1993, del Consejero de Agricultura y Pesca.

*Artículo 14.*

Las bajas por muertes de los animales serán comunicadas por sus propietarios/as o poseedores/as a su veterinario/a, quien lo notificará al Registro Territorial correspondiente, en el término de 10 días a contar desde el día en que se produjo.

*Artículo 15.*

En el supuesto de robo o desaparición, se deberá denunciar el suceso dentro de las 24 horas siguientes y posteriormente se comunicará directamente al Registro Territorial correspondiente en un plazo máximo de 10 días.

En el caso de animales potencialmente peligrosos, la sustracción o pérdida del animal deberá ser denunciada dentro del plazo anteriormente establecido así como comunicar dicha circunstancia, por su titular, al responsable del Registro Municipal de Animales potencialmente peligrosos en el plazo máximo de 48 horas desde que tenga conocimiento de los hechos.

*Artículo 16.*

Los/as propietarios/as o poseedores de perros que cambien de domicilio o que transfieran su posesión del animal, deberán comunicar estas circunstancias en el plazo de 10 días al veterinario y al Registro Territorial correspondiente.

*Artículo 17.*

El importe de los servicios de identificación, confección de la cartilla sanitaria e inscripción en el censo será por cuenta del propietario.

*Artículo 18.*

Los animales definidos en esta Ordenanza como abandonados serán retenidos por el servicio municipal correspondiente o contratado.

*Artículo 19.*

En el caso de perros catalogados como «perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia», será necesario que

EK\CV GAO-I-2018-06127

sailkatua dagoela agertzea Txakurren Kartilla Ofizialean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Animalien Identifikazio Elektronikoko Erregistro Orokorrean.

III. KAPITULUA. ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

*20. artikulua.*

Animalia bati gizakientzat zein gainontzeko animalientzat kutsakorra den gaixotasunen bat diagnostikatzen badiote, edo horrelako gaixotasun sintomak baditu, edo pertsona nahiz animaliaren bati hozka egin badio, Udalak agindu dezake animalia hori zaintzapean eta behaketan jartzea.

Animaliaren batek pertsonentzat nahiz animalientzat kutsakorra den gaixotasunen bat badu (albaitari kolegiatu batek diagnostikatua) eta albaitariaren iritziz animalia akabatu egin behar bada, baimendutako sistemaren bat erabiliz akabatuko da, eta gastuak jabeak ordaindu beharko ditu. Horiez gain, gaixotasun kroniko sendaezinak edukirik jabeek behar bezala zaintzen ez dituztenak ere akabatu egin beharko dira.

*21. artikulua.*

Pertsona bati edo gehiagori hozka egin eta lesioak eragin dituela frogatu zaion animaliari Gipuzkoako Lurraldean animalia haginkarientzat ezarrita dagoen indarreko zaintza eta behaketa ezarriko zaio.

*22. artikulua.*

Aipaturiko zaintza eta behaketa aurrera eramango da, soilik hozkada jasan duen pertsona edo bere ordezkariak Udalean hozkadaren salaketa bat jarri baldin badu.

IV. KAPITULUA. ANIMALIAK LEKU PUBLIKOETAN

*23. artikulua.*

Hiriko bide eta leku publikoetan eta eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan, txakurrak kontrolpean eta uhal batez loturik eduki behar dira. Uhalak egokia izan behar du animaliaren ezaugarrietarako.

*24. artikulua.*

«Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak» eta «arriskutsuak izan daitezkeen animalia» gisa sailkatutako animalien kasuan, jabeek, hazleek edo edukitzaileek, aipaturiko baldintza orokorrez gain eta herri segurtasunari buruzko legerian xedaturikoez gain, ondoko baldintza berezi hauek bete behar dituzte:

a) Txakurra dagoen leku edo esparrua segurtasun sistema egokiaz hornitu behar da animaliak ihes egitea eragozteko edo haurrek bertara erraztasunez sar ez daitezen, auzokoentzat, kaletik pasatzen direnentzat edo gainerako animalientzat inolako arriskurik ez dagoela bermatzeko.

b) Debekaturik dago animalia lotzeko luza daitezkeen uhalak erabiltzea.

c) Bide publikoetan, eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan eta, oro har, leku publikoetan, derrigorrezkoa da txakurrak une guztietan muturrekoa eramatea, bakoitzaren tipologia kontuan hartuta egokia duena.

d) «Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak» katalogaturik dauden txakurrek ezin dute inola ere parte hartu txakur erakusketa, lehiaketa edo bestelako gertakizunetan.

dicha catalogación figure, tanto en la propia Cartilla Oficial Canina de los mismos, como en el Registro General de Identificación Electrónica de Animales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

CAPÍTULO III. CONTROL SANITARIO DE LOS ANIMALES

*Artículo 20.*

El Ayuntamiento podrá ordenar el sometimiento a vigilancia y observación sanitaria de aquellos animales a los que se les hubiera diagnosticado o presenten síntomas de enfermedades transmisibles, tanto para las personas como para otros animales, o que hubieran atacado a otras personas o animales.

Todos los animales afectados de enfermedad susceptible de contagio para las personas o animales, diagnosticada por un veterinario colegiado, y que a su juicio, tengan que ser sacrificados, lo serán por un sistema autorizado con cargo al propietario; también deberán sacrificarse los que padezcan afecciones crónicas incurables y no estuvieran debidamente cuidados y atendidos por sus propietarios.

*Artículo 21.*

El animal del que se tenga constancia que ha producido lesión por mordedura a persona o personas, será sometido al procedimiento de vigilancia y observación sanitaria establecido para animales mordedores, vigente en ese momento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Artículo 22.*

El mencionado proceso de vigilancia y observación se llevará a cabo, única y exclusivamente en aquellos casos en que la mordedura se constate por medio de la correspondiente denuncia, formulada por parte de la persona que haya sido mordida o por su representante ante el Ayuntamiento.

CAPÍTULO IV. PERMANENCIA DE ANIMALES EN LUGARES PÚBLICOS

*Artículo 23.*

En las vías y espacios públicos urbanos, así como en las partes comunes de los inmuebles colectivos, los animales de la especie canina deberán ir bajo control y sujetos mediante el uso de una correa, adecuada a las características del animal y con una longitud máxima de dos metros.

*Artículo 24.*

En el caso de perros catalogados como «perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia» y en el de «Animales Potencialmente Peligrosos» sus propietarios/as, criadores/as o poseedores/as deberán cumplir, además de las condiciones generales de tenencia de animales descritas anteriormente y las contenidas en la legislación aplicable en materia de seguridad pública, las condiciones particulares que figuran a continuación:

a) El recinto donde se hallara el animal, deberán proveerlo de adecuados sistemas de seguridad que impidan la huida del mismo o que los niños y las niñas puedan acceder fácilmente almismo, con el fin de garantizar la total ausencia de peligro o riesgo tanto para la vecindad y/o transeúntes como para otros animales.

b) Quedarán prohibidas las correas extensibles de sujeción.

c) Será obligatorio el uso permanente del bozal apropiado a la tipología racial de cada animal en las vías públicas, en las partes comunes de los inmuebles colectivos y en los espacios públicos en general.

d) En el caso de los animales catalogados como «perros sometidos a condiciones especiales para su tenencia», quedarán excluidos de participar en exposiciones, concursos y otros eventos de la especie canina.

EK\CV GAO-I-2018-06127

*25. artikulua.*

Debekatua dago animaliak honako leku hauetan sartzea eta bertan edukitzea:

a) Edozein motako elikagaiak fabrikatu, salmenta, biltegiratze, garraiatu edo saltzeko lekuak (kafetegiak, tabernak, jatetxeak, etab.).

b) Ikuskizun publiko, kultural, kirol eta jostetako lokalak eta osasun zentroak. Bakarrik sartu ahal izango dira leku horietan animalien lehiaketak edo ikuskizunak antolatzen direnean.

c) Ikastetxeak, salbu eta heziketa prozesuan behar badira, eta kasu honetan zuzendariaren edo zentroko arduradunaren erantzukizuna izango da.

Goian aipatutako leku horien guztien titularrek debeku hau adierazten duten seinaleak ipini beharko dituzte ondo ikusteko moduan.

*26. artikulua.*

25. artikuluan adierazitakoetan sartzen ez diren eta herritarrentzako irekita dauden denda batzuen jabeek ere txakurrak euren dendetan sartzea eta bertan egotea debeka dezakete; debeku hori argi eta garbi adierazi beharko da dendaren sarreran. Txakurrak sartuz gero, ordea, derrigorrez eskatu beharko dute txakurrek identifikazioa izatea, uhalarekin lotuta egotea eta muturrekoa ipinita, txakurraren ezaugarriek eta izaerak halakorik eskatzen badute. Bestalde, txakurrek ezin izango dute gaixotasun sintomarik eduki edo zikinak egon. Ezin izango da txakurrik sartu janaria egin eta manipulatzen den lekuetan.

*27. artikulua.*

Toki komunitario pribatuetan, hau da, kultur elkarte, jolas elkarte, auzokideen komunitateen erabilerarako leku eta abarretan animaliak sartu eta egon ahalko dira, baldin eta entitate horiek dituzten arauek onartzen badituzte eta arauak betetzen badituzte.

*28. artikulua.*

Gida-txakurren laguntzaz ibiltzen diren pertsonentzat ez dago debekatua aurreko artikuluetan adierazitakoa.

*29. artikulua.*

Debekatua dago txakur-gorozkiak bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, zelaietan eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea.

Horregatik, txakurrekin doazen pertsonek gorozkiak jaso egin beharko dituzte.

Txakurrak gorotzak bide eta plaza publikoetan, parkeetan, lorategietan, zelaietan eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uzten badu, txakur jabeak edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoen erantzule, Kode Zibilaren 1.905. artikuluak xedatzen duen moduan; baita txakurrak alde egiten badio ere.

Txakur batek bide publikoa zikintzen badu, herritarrek eskubidea izango dute txakur jabeari edo eramaileari zikindutakoa garbi dezala eskatzeko.

*30. artikulua.*

Animalia bide publikoetan egon edo ibiltzen bada, eta norbaiti eta ondasun publiko zein pribatuei kalterik egiten badie, jabea edo hartaz baliatzen dena izango da erantzulea, Kode Zibilaren 1905. artikuluak xedatzen duen moduan.

*Artículo 25.*

No se permitirá la entrada y permanencia de animales en los siguientes lugares:

a) Locales o vehículos destinados a la fabricación, venta, almacenamiento, transporte y manipulación de alimentos (cafeterías, bares, restaurantes, etc.).

b) Locales de espectáculos públicos, deportivos, culturales o recreativos, así como en los centros sanitarios, salvo en los certámenes, concursos de animales y espectáculos en los que éstos sean parte fundamental.

c) Dependencias de centros educativos, siempre que dichos animales no sean utilizados en los procesos de formación que se lleven a cabo y en este caso bajo la responsabilidad del Director o Encargado del Centro.

Los titulares de los establecimientos citados anteriormente deberán colocar en lugar visible señales indicativas de esta prohibición.

*Artículo 26.*

Los titulares de otros establecimientos abiertos al público, distintos a los señalados en el artículo 25, podrán prohibir, a su criterio, la entrada y permanencia de animales, señalando visiblemente en la entrada tal prohibición. En cualquier caso, han de exigir que los animales lleven la correspondiente identificación y vayan sujetos con correa, provistos de bozal si sus características y naturaleza así lo aconsejan, y siempre que no presenten síntomas de enfermedad o falta de aseo. En ningún caso tendrán acceso a las zonas destinadas a la elaboración y manipulación de alimentos.

*Artículo 27.*

El acceso y permanencia de los animales en lugares comunitarios privados, tales como sociedades culturales, recreativas, zonas de uso común de comunidades de vecinos, etc. estará sujeto a las normas que rijan dichas entidades.

*Artículo 28.*

Las personas discapacitadas que vayan asistidas por perros lazarillos quedan exentas de las prohibiciones anteriores.

*Artículo 29.*

Queda prohibido abandonar las deyecciones de los perros en las vías públicas, playas, parques, jardines, campas y, en general en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de personas.

Por ello, las personas que conduzcan perros deberán recoger las deyecciones.

En caso de que el perro deposite las deyecciones en las vías y plazas públicas, playas, parques, jardines, campas y en general en cualquier lugar destinado al ornato y/o tránsito de personas, la persona propietaria del perro o quien se sirva de él será responsable de los daños y perjuicios que el animal cause, aunque se le escape, de conformidad con el artículo 1.905 del Código Civil.

Ante la situación de que un animal causara suciedad en la vía pública, la ciudadanía está facultada en todo momento para pedir al propietario o tenedor del animal la reparación inmediata del deterioro causado.

*Artículo 30.*

El/la poseedor@ de un animal o que se sirva de él, será responsable de los daños, perjuicios y molestias que causare, aunque se le escape o extravíe, conforme a lo establecido en el artículo 1905 del Código Civil.

EK\CV GAO-I-2018-06127

V. KAPITULUA. ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA

*31. artikulua. Hildako animaliak.*

Bide eta errepide publikoetan agertzen diren animalia hilen gorpuak Udalak edo zerbitzua kudeatzen duen enpresak jasoko ditu. Ez ditu jasoko, ordea, Lurzoruaren Legearen arabera lurzoru urbanizaezin kalifikatutako lekuetakoak, udal lurrak ez badira behintzat. Egoerak aginduta, udal zerbitzuek animalia hildakoren bat jabetza pribatuko lurren batetik jaso behar badute, sortutako kostuak animaliaren jabeak hartuko ditu bere gain, eta hala ez balitz lurraren jabeak.

*32. artikulua. Abandonatutako txakur eta katuen kontrola.*

1. Herrian zehar edo herri inguruko bideetan zehar jaberik edo eramailerik gabe dabilen animalia jaso egingo da, eta dagokion zerbitzura eramango, propioa nahiz itundua dela, udal administrazioak eskatuta.

2. Identifikaziorik gabeko animaliak jasota edukitzeko epea gutxienez 30 egun naturalekoa izango da. Epe horretan inork ez badu haren galde egin, ondoko hauetakoren bat egin ahal izango da: animaliaren jabe egin, beste norbaiti eman edo hura hil.

Animaliak identifikaziorik baldin badarama haren jabeari animalia jaso edo erretenitu dela jakinaraziko zaio eta jabeak 7 egun baliodun izango ditu hura berreskuratzeko. Animalia zentroan jasota egon den artean izandako gastuak jabeak ordaindu beharko ditu. Epe hori igaro eta jabeak animalia berreskuratu ez badu, aurreko idatz zatian adierazitakoa egingo da animaliarekin.

3. Albaitariaren txostenak animaliaren egoera zein osasuna txarrak direla eta bere izaera arriskutsua dela adierazten badu, animalia akabatzeko epea aldatu egin ahal izango da, eta presaz akabatu ahal izango da.

4. Zerbitzu propio nahiz itunduan utzitako animalia identifikatuak, jabeek aldez aurretik haien jabetzari espresuki uko egin badiote, animaliak eskatzen dituen edonori eman ahal izango zaizkio 30 eguneko epean, gehienez ere. Horrelakoetan animaliari uko egin dionak ordaindu beharko ditu jasota egon den bitartean sortutako kostuak.

5. Lakiolariak lanean ari diren bitartean Agintaritzaren Agentetzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

VI KAPITULUA. ERASO BATEN AURREAN NOLA JARDUN

*33. artikulua.*

1. Animalia batek norbait eraso diolako salaketa jaso edo horren berri daukan udal zerbitzuak erasoa egin duen animaliaren edota haren jabea identifikatzen lagunduko duen datu oro bilduko du salatzailearengandik edo gertakarien jakinarazpena egin duenarengandik, eta berehala jarriko ditu datu horiek administrazio-espedienteaz arduratuko den agintaritzaren eskuetan, alegia, txakurra erroldatuta dagoen eta, halakorik ezean, jabea bizi den udalerriko udalaren eskuetan, eta dokumentazio guztia udal horretara eramango da.

2. Erasoan norbaiti hozka egin badio eta horrek lesioren bat sortu badio, erakunde eskudunak espedientea ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta foru aldundietako abere osasuneko zerbitzuei.

Lesioak eragin dituen animaliaren jabeak 24 ordu izango ditu animalia berak aukeratutako albaitari ofizial edo gaitu batengana eramateko; animaliak, txakurra bada, behaketan egon beharko du hamalau egunez, baina egun kopuru hori aldatu egin ahal izango da beste animalia batzuen kasuan edo unean uneko baldintza epizootiologikoek hala gomendatzen badute, betiere, txosten tekniko batek hartarako arrazoiak ematen baditu. Hozka egin eta 24 orduen epe hori igaro, eta jabeak txakurra albaitariarengana borondatez eraman ez badu, eskumena duen udal agintaritzak eraman dezan eskatuko dio, eta anima-

CAPÍTULO V. SERVICIO DE RECOGIDA

*Artículo 31. Animales muertos.*

El Ayuntamiento, o la empresa que gestione el servicio, recogerá los cadáveres de animales en las vías y caminos públicos, quedando excluidos los cadáveres cuando se encuentren en suelo calificado como no urbanizable conforme a la Ley del Suelo y que sean de propiedad no municipal. En el caso de que los servicios municipales, dada la situación, tuviesen que retirar un animal muerto en un terreno o finca privada, su costo será asumido por el propietario del animal o en su defecto por el propietario del terreno o finca.

*Artículo 32. Control de perros y gatos abandonados.*

1. Los animales que circulen por la población o vías interurbanas sin su dueño/a o acompañante serán recogidos y trasladados al Servicio correspondiente, propio o concertado, a requerimiento de la Administración Municipal.

2. El plazo de retención de un animal sin identificación será cómo mínimo de treinta días naturales. Transcurrido dicho plazo sin que fuera reclamado, el animal podrá ser objeto de apropiación, cedido a un tercero o sacrificado.

Si el animal lleva identificación, se notificará fehacientemente su recogida o retención al propietario, quien dispondrá de un plazo de 7 días hábiles para recuperarlo abonando los gastos que haya originado su estancia en el centro de recogida. Transcurrido dicho plazo sin que el propietario lo hubiese recuperado, se dará animal el destino previsto en el apartado anterior.

3. Cuando las circunstancias sanitarias, estado o peligrosidad del animal así lo aconsejen, y previo informe veterinario, el plazo del sacrificio podrá ser modificado, contemplándose incluso el sacrificio de urgencia.

4. Los animales identificados, depositados en el Servicio (propio o concertado), previa renuncia expresa a su posesión por el propietario del mismo, serán puestos de inmediato a disposición de quien los solicite durante un período no superior a treinta días naturales. En este caso el propietario que renuncia al animal deberá abonar los costos de la estancia.

5. Los laceros, en el ejercicio de su actividad, tendrán a todos los efectos el reconocimiento de Agentes de la Autoridad.

CAPÍTULO VI. PROCEDIMIENTO ANTE UNA AGRESIÓN

*Artículo 33.*

1. El Servicio Municipal ante quien se denuncie o se ponga en conocimiento la agresión causada por un animal, recabará del denunciante o de quien comunica los hechos, cualquier dato que procure la identificación del propietario y/o poseedor y del animal causante de la agresión, poniéndolo inmediatamente en conocimiento de la autoridad encargada de la tramitación del expediente administrativo, que será el Ayuntamiento donde esté censado el animal o en su defecto donde resida el propietario, trasladándose toda la documentación.

2. En el caso de que la agresión lleve aparejada lesiones causadas por mordedura la autoridad competente en la tramitación comunicará a la Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad y a los Servicios de Sanidad Animal de las Diputaciones Forales la apertura del expediente.

El Propietario y/o poseedor del animal causante de las lesiones, en el plazo de 24 horas, deberá someterlo a observación por parte del veterinario oficial o habilitado de su elección durante catorce días, en el caso de perros, o por un periodo de tiempo distinto según el animal de que se trate o cuando las circunstancias epizootiológicas de cada momento así lo aconsejen y previo informe técnico motivado. Si transcurridas 24 horas desde la mordedura, no lo hubiese hecho de manera voluntaria, la autoridad municipal competente, le requerirá para hacerlo, pudiendo ordenar el internamiento y/o aislamiento del animal

EK\CV GAO-I-2018-06127

liak jasotzen dituen zentro batean sartzeko edota isolatzeko agindu ahal izango du. Errekerimendu hau ez betetzea arauhauste larria izango da ekainaren 26ko 8/1997 Legeko –Euskadiko Antolamendu Sanitarioa– 36.2.b.1 artikuluan jasotakoari jarraituz, eta han esandakoa bermatzeko kautelazko neurriak hartzearen kaltetan izan gabe. Dena den, egindako txostenaren edo egiaztagiriaren kostua animaliaren jabeak edota edukitzaileak ordaindu beharko du. Animaliak jabe edo edukitzaile jakinik izango ez balu, gertakarien berri jaso duen udal zerbitzua arduratuko da animalia jaso eta behaketan jartzeaz. Behaketaren berri eman beharko dio espedientea tramitatzeko eskumendun udalari gertaerak izan eta 72 orduko epea baino lehen.

Albaitariak behaketa egingo du zoonosia izateko arriskua dagoen ala ez ikusteko eta animaliaren izaera arriskutsua izan daitekeen ala ez ebaluatzeko eta, 101/2004 dekretuko 0. eranskinean dagoen ereduari jarraituz, emaitzari buruzko egiaztagiria/txostena bidali beharko du. Jabeak edota edukitzaileak, behin animaliari behaketa egin zaionean, 48 ordu izango ditu albaitariaren egiaztagiria/txostena bidaltzeko espedientea izapidetzen ari den udalari –lehen paragrafoan adierazitakoar–, udal horrek espedientean sar dezan. Udalak, dagokion foru aldundiko Abeltzaintza Zerbitzura eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Zerbitzura bidali beharko du kopia bat. Behaketa hori egin ondoren, arrisku sanitarioa dagoela ikusten bada, horretan diharduen administrazioak txakurra zentro batean sartzeko edota isolatzeko edo, egoera horretan egonez gero, berdin jarraitzeko agindua eman dezake.

3. Erasoan hozkadarik egin ez badio, jabeak edo edukitzaileak berak nahi duen albaitari ofizial edo gaitu batengana eraman beharko du txakurra; albaitariak animaliaren izaera arriskutsua den ala ez ebaluatuko du nahi duen denboran, eta egiaztagiri bat emango du. Jabeak espedientea izapidetuko duenari bidali beharko dio egiaztagiri hori.

VII KAPITULUA. ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK

*34. artikulua. Araubide orokorra.*

Arriskutsuak izan daitezkeen animaliei, Ordenantza honetako 3. artikuluan zehaztutakoei, aplikatzekoak izango dira arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, lege hori garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan, eta aplikagarri gerta litekeen beste edozein araubidetan jasotakoak.

*35. artikulua. Lizentzia.*

1. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen babesean animalia arriskutsutzat sailkatutako edozein animalia eduki ahal izateko, administrazio-lizentzia lortu behar da, eskatzailea bizi den udalerriko udalak emango duena edo, bestela, salerosketa edo txakurraren trebakuntza egin deneko udalak –bizi den udalean horren berri eman ondoren–, betiere aurrez, gutxienez honako betekizun hauek betetzen direla egiaztatu ondoren:

a) Adinez nagusi izatea.

b) Hilketa, lesio edo torturengatiko, askatasunaren edo osotasun moralaren, sexu askatasunaren eta osasun publikoaren aurka egiteagatiko, edo talde armatu edo narkotrafikatzaile batekin lotura izateagatiko delituengatik kondenatua ez izatea, eta ebazpen judizial batek arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko eskubidea kenduta ez izatea.

c) Arriskutsuak izan daitezkeen animalien araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.3 artikuluan adierazitako zehapen osagarririk jaso ez izana, arauhauste larria edo oso larria egin izanagatik. Lizentzia denbora baterako kendu izanak ez du esan nahi, hala ere, lizentzia ge-

en un centro de recogida de animales. El incumplimiento de este requerimiento será considerado infracción grave de acuerdo al artículo 36.2.b.1 de la Ley 8/1997 de 26 de junio de Ordenación Sanitaria de Euskadi y sin perjuicio de la adopción de las medidas cautelares necesarias para garantizar su cumplimiento. En todo caso, el coste del informe o certificado emitido, si lo hubiere, corresponderá al propietario y/o poseedor del animal. En el caso de que el animal no tuviera propietario o poseedor conocido, el Servicio Municipal conocedor de los hechos será el encargado de su recogida y puesta en observación. Esta puesta en observación deberá comunicarla al Ayuntamiento competente en la tramitación del expediente dentro del plazo de 72 horas de ocurridos los hechos.

El veterinario deberá realizar la observación para descartar o detectar riesgos de zoonosis y para evaluar el potencial riesgo del carácter del animal, emitiendo el correspondiente certificado / informe del resultado de la misma conforme al modelo del anexo 0 del decreto 101/2004. El propietario y/o poseedor, terminada la observación, deberá remitir en el plazo de 48 horas el certificado / informe veterinario a la autoridad competente en la tramitación del expediente, señalada en el párrafo primero, para su incorporación al mismo, quien a su vez remitirá una copia del certificado / informe veterinario al Servicio de Ganadería de la Diputación Foral correspondiente y a Unidad de Vigilancia Epidemiológica del Departamento de Sanidad. Si del resultado de la observación practicada se infiriesen circunstancias de riesgo sanitario, la Autoridad municipal podrá ordenar la prórroga o establecimiento del internamiento y/o aislamiento del perro.

3. Si la agresión no lleva aparejada lesiones causadas por mordedura el propietario o poseedor del perro deberá someterlo a observación por parte del veterinario oficial o habilitado de su elección, para evaluar el potencial riesgo del carácter del animal, durante el tiempo que éste estime necesario, emitiendo el oportuno certificado que será remitido por el propietario a la autoridad competente para la tramitación del expediente.

CAPÍTULO VII. DISPOSICIONES ESPECÍFICAS SOBRE ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS

*Artículo 34. Régimen General.*

Será de aplicación a los animales potencialmente peligrosos, definidos en el artículo 3 de la presente Ordenanza, lo establecido en la Ley 50/1999 de 23 de diciembre, sobre el régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos, en el Real Decreto 287/2002 de 22 de marzo que la desarrolla y demás normativa que resulte de aplicación.

*Artículo 35. Licencia.*

1. La tenencia de cualquier animal clasificado como potencialmente peligroso al amparo de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el régimen jurídico de la tenencia de animales potencialmente peligrosos requerirá la previa obtención de una licencia administrativa, que será otorgada por el Ayuntamiento del Municipio de residencia del solicitante, o, con previa constancia en este Ayuntamiento, por el Ayuntamiento en que se realiza la actividad de comercio o adiestramiento, una vez verificado el cumplimiento de, al menos, los siguientes requisitos:

a) Ser mayor de edad.

b) No haber sido condenado por delitos de homicidio, lesiones, torturas, contra la libertad o contra la integridad moral, la libertad sexual y la salud pública, asociación con banda armada o de narcotráfico, así como no estar privado por resolución judicial del derecho a la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

c) No haber sido sancionado por infracciones graves o muy graves con alguna de las sanciones accesorias de las previstas en el apartado 3 del artículo 13 de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de Animales Potencialmente Peligrosos. No obstante, no será impedimento para la

EK\CV GAO-I-2018-06127

hiago eskuratzerik edo berritzerik izango ez denik; hori bai, lizentzia eskatzerakoan, osorik beteta izan behar da aurreko zehapena, alegia, lizentziarik gabe egon beharreko aldiak bukatuta egon behar du.

d) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak eduki ahal izateko ahalmen fisikoa eta gaitasun psikologikoa izatea.

e) Hirugarren batzuentzako kalteengatiko erantzukizun zibileko asegurua formalizatuta izatea, estaldura ehun eta hogei mila eurotik (120.000) gorakoa duena.

Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren jabeek, ekainaren 1eko 101/2004 dekretuko 13-3-e) eta 12. artikuluetan jasotakoarekin bat, aurreko idatz-zatian ezarritako baldintzapeko asegurua formalizatzeaz gain, animalia identifikatzen den egunetik hasita hamar eguneko epean kontratatu beharko dute aseguru hori, dagokion erregistroan sartu baino lehen. Aseguru hori beste aseguru batzuen barruan egon daiteke, baina edozein kasutan ere, kontratazioak egiaztagiri baten bidez onetsita egon beharko du, aipatutako 101/2004 dekretuko III. eranskinean jasotako ereduaren araberakoaren bidez. Egiaztagiria aseguru konpainiak egindakoa izango da. Bertan, aseguruak babestutako txakurraren identifikazioari berariazko erreferentzia egingo zaio eta aseguruaren efektu-data eta mugaeguna zehaztuko dira.

Txakurraren jabearen ardura izango da animalia bizi den artean erantzukizun zibilerako aseguru horren babespean edukitzea eta asegurua indarrean mantentzea, horretarako beharrezko berritzeak eginez, hala behar denean.

f) 1. idatz-zati honetako b) eta c) paragrafoetan ezarritako betekizunak dagozkien erregistroek egindako egiaztagiri negatiboen bidez erakutsiko da. Ahalmen fisikoa eta gaitasun psikologikoa lehen ere aipatutako martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz lortutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira.

2. Lizentzia administratiboa, interesatuaren eskariz, eskumena duen organoak eman edo berrituko du, 50/1999 Legean xedatutakoari jarraituz, aurreko idatz-zatian ezarritako betekizunak egiaztatu ondoren.

3. Lizentzia bost urterako izango da eta berritu egin ahal izango da iraupen bereko segidako aldietan. Hala ere, lizentziaren indarraldia galdu egingo da aurreko idatz-zatian ezarritako edozein betekizun betetzen ez denean.

Lizentzian ageri diren datuetako edozein aldatzen bada, titularrak eskumena duen organoari jakinarazi beharko dio aldaketa gertatzen den egunetik zenbatzen hasita hamabost egun baino lehen.

4. Bide judiziala edo administratiboa erabiliz emandako administrazio-lizentzia bati kautelazko neurriak ezartzen bazaizkio edo lizentzia hori kentzen bada, ez da izango beste lizentzia berririk ematerik edo lizentzia bera berritzerik, harik eta egoera hori aldatu arte.

5. Artikulu honetako 1. paragrafoan eskatutako betekizunak bete gabe emandako lizentziek ez dute inolako baliorik izango eta, beraz, titularrak ez duela lizentziarik ulertuko da.

*36. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroa.*

1. Lizentziaren titularrari dagokio txakurra arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan sartzeko eginbeharra, lizentzia eskuratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, hamabost eguneko epean.

2. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroari jakinarazi beharko zaio animaliaren salmenta, eskualdaketa, dohaintza, lapurreta, heriotza edo galeraren berri, hala jasota utziz dagokion erregistro orrian.

obtención o, en su caso, renovación de la licencia, haber sido sancionado con la suspensión temporal de la misma, siempre que, en el momento de la solicitud, la sanción de suspensión anteriormente impuesta haya sido cumplida íntegramente.

d) Disponer de capacidad física y aptitud psicológica para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

e) Acreditación de haber formalizado un seguro de responsabilidad civil por daños a terceros con una cobertura no inferior a ciento veinte mil euros (120.000).

Los propietarios de Perros Potencialmente Peligrosos, conforme al artículo 13-3-e) y 12 del decreto 101/2004,de 1 de junio, además de la formalización de un seguro en los términos establecidos en el apartado anterior, deberán contratarlo en el plazo de diez días desde la identificación del animal y previamente a la inclusión del mismo en el registro correspondiente. Dicho seguro podrá estar incorporado en otros seguros, pero en todo caso su contratación deberá estar acreditada por medio de un certificado, conforme el modelo que figura en el anexo III del citado decreto 101/2004, emitido por la compañía aseguradora. En el mismo, se hará referencia expresa a la identificación del perro cubierto por la misma y las fechas de efecto y vencimiento del mismo.

El titular de perro será responsable de que el animal esté cubierto durante la vida del mismo por un seguro de responsabilidad civil en vigor, realizando para ello las renovaciones que sean necesarias en el momento oportuno.

f) El cumplimiento de los requisitos establecidos en los párrafos b) y c) de este apartado 1. se acreditará mediante los certificados negativos expedidos por los registros correspondientes. La capacidad física y la aptitud psicológica se acreditarán mediante los certificados obtenidos de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 287/2002 de 22 de marzo, anteriormente referenciado.

2. La licencia administrativa será otorgada o renovada, a petición del interesado, por el órgano competente, conforme a lo dispuesto en la Ley 50/1999, una vez verificado el cumplimiento de los requisitos establecidos en el apartado anterior.

3. La licencia tendrá un periodo de validez de cinco años pudiendo ser renovada por periodos sucesivos de igual duración. No obstante, la licencia perderá su vigencia en el momento en que su titular deje de cumplir cualquiera de los requisitos establecidos en el apartado anterior.

Cualquier variación de los datos que figuran en la licencia deberá ser comunicada por su titular en el plazo de quince días, contados desde la fecha en que se produzca, al órgano competente para su expedición.

4. La intervención, medida cautelar o suspensión que afecte a la licencia administrativa en vigor, acordada en vía judicial o administrativa, será causa para denegar la expedición de otra nueva o su renovación hasta que aquéllas se hayan levantado.

5. Las licencias concedidas sin haber cumplido los requisitos exigidos en el párrafo 1 de este artículo, serán nulas a todos los efectos y, por tanto, se considerará al titular de la misma como carente de licencia.

*Artículo 36. Registro de Animales Potencialmente Peligrosos.*

1. Incumbe al titular de la licencia la obligación de solicitar la inscripción en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos, dentro de los quince días siguientes a la fecha en que haya obtenido la correspondiente licencia.

2. Deberá comunicarse al registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos, la venta, traspaso, donación, robo, muerte o pérdida del animal, haciéndose constar en su correspondiente hoja registral.

EK\CV GAO-I-2018-06127

3. Arriskutsua izan daitekeen animalia Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko beste udalerri batera lekualdatzeko, betiko edo hiru hilabetetik gorako aldirako, jabeak ezinbestean egin beharko ditu dagozkion inskripzioak udal erregistroetan.

4. Animaliaren titularrak artikulu honetan agindutakoa betetzen ez badu, dagokion zehapen administratiboa egingo zaio, 50/1999 Legeko 13. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

*37. artikulua. Segurtasun neurriak.*

1. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabe, hazle edo edukitzaileek indarrean dagoen legerian hiritarren segurtasunerako ezarritako arau guztiak betetzera derrigortuta daude, animalia horien eta gizakion arteko bizikidetzarik hoberena bermatzeko xedez eta biztanleriari ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko.

2. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak leku edo espazio publikoetan egoteko animaliok daramatzanak eta kontrolatzen dituenak soinean eraman beharko ditu Ordenantza honetako 35. artikuluan aipatutako lizentzia administratiboa eta animalia hori arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroan izena emanda daukala egiaztatzen duen ziurtagiria.

3. Etxalde, landetxe, txalet, lursail, terraza, patio edo beste edozein leku mugatutan dauden eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliek lotuta egon beharko dute, baldin eta leku horietara sartu edo hurbildu daitezen lagunak eta animaliak babesteko besteko azalera, altuera eta itxitura egokidun lekuan ez badaude.

4. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien hazle, hezitzaile eta salerosleek animaliok edukitzeko instalazio eta baliabide egokiak izan beharko dituzte.

5. Arriskutsua izan daitekeen animalia lapurtu edo galtzen bada, titularrak gertakari horren berri eman beharko dio arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erregistroko arduradunari, gertaeraren berri izan eta, gehienez, berrogeita zortzi orduko epea pasatu baino lehen.

*38. artikulua. Salbuespenak.*

Jabeak zenbait betekizunetatik salbuetsi ahal izango dira, baldin eta egoera kontuan izanik, halaxe komeni bada. Honako kasu hauetan gerta daiteke hori:

a) Animaliok funtzio sozial batekin erabiltzen dituzten erakunde publiko edo pribatuak direnean.

b) Ganadua zaintzeko, babesteko eta maneiatzeko, bai eta jarduera zinegetikoetarako ere, txakurrak erabiltzen dituzten nekazaritzako ustiategiak direnean. Txakur horiek ezingo dute 50/1999 Legean jasotako legez kontrako ekintzatan jardun.

c) Lan eta kirol arloko probetan parte hartzeko aukeratu behar diren txakurrak direnean; erakunde eskudunak baimendu eta ikuskatuko ditu txakur horiek. Indarrean dagoen araudian eta Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, ez dira onartuko borroka eta erasoetan parte hartu behar dutenak.

*39. artikulua.*

Arriskutsua izan daitekeen txakurra dela jaso egin beharko da bai Txakurraren Kartilla Ofizialean, bai Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean.

*40. artikulua.*

Arriskutsua izan daitekeen txakur baten jabeak Dekretu honetan jasotzen diren neurriak betetzen ez baditu, udal aginteak kautelazko neurriak ezarriko ditu, eta aurreikusita daukan zentro batera eramango du. Halaber, zehapen ekonomikoak ere ezarri ahal izango dira. Zehapen prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean, behar izanez gero, indarrean dagoen araudian adierazten diren zehapen osagarriak ezarri ahal izango dira.

3. El traslado de un animal potencialmente peligroso a un Municipio de fuera de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sea con carácter permanente o por periodo superior a tres meses, obligará a su propietario a efectuar las inscripciones oportunas en los correspondientes Registros Municipales.

4. El incumplimiento por el titular del animal de lo preceptuado en este artículo será objeto de la correspondiente sanción administrativa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 50/1999.

*Artículo 37. Medidas de Seguridad.*

1. Los propietarios, criadores o tenedores de animales potencialmente peligrosos tendrán obligación de cumplir todas las normas de seguridad ciudadana establecidas en la legislación vigente, de manera que garanticen la óptima convivencia de estos animales con los seres humanos y eviten molestias a la población.

2. La presencia de animales potencialmente peligrosos en lugares o espacios públicos exigirá que la persona que los conduzca y controle lleve consigo la licencia administrativa a la que se refiere el artículo 35 de la presente Ordenanza, así como certificación acreditativa de la inscripción del animal en el registro Municipal de animales potencialmente peligrosos.

3. Los animales potencialmente peligrosos, que se encuentren en una finca, casa de campo, chalet, parcela, terraza, patio o cualquier otro lugar delimitado, habrán de estar atados, a no ser que se disponga de habitáculo con la superficie, altura y adecuado cerramiento, para proteger a las personas o animales que accedan o se acerquen a estos lugares.

4. Los criadores, adiestradores y comerciantes de animales potencialmente peligrosos habrán de disponer de instalaciones y medios adecuados para su tenencia.

5. La sustracción o pérdida de un animal potencialmente peligroso habrá de ser comunicada por su titular al responsable de Registro Municipal de animales potencialmente peligrosos en el plazo máximo de cuarenta y ocho horas desde que se tenga conocimiento de esos hechos.

*Artículo 38. Excepciones.*

Cuando las circunstancias así lo aconsejen, podrán establecerse excepciones al cumplimiento de determinadas obligaciones de los propietarios en casos de:

a) Organismos públicos o privados que utilicen estos animales con una función social.

b) Explotaciones agrarias que utilicen perros de guardia, defensa y manejo de ganado, así como actividades de carácter cinegético, sin que los mismos puedan dedicarse, en ningún caso, a las actividades ilícitas contempladas en la Ley 50/1999.

c) Pruebas de trabajo y deportivas con fines a la selección de ejemplares que participan en las mismas y que están autorizadas y supervisadas por la autoridad competente, con exclusión de los ejercicios para peleas y ataque, según lo dispuesto en la normativa vigente y en la presente Ordenanza.

*Artículo 39.*

La consideración como perro potencialmente peligroso deberá figurar, tanto en la cartilla oficial canina como en el registro general de identificación de animales de la CAPV.

*Artículo 40.*

La autoridad municipal procederá a la intervención cautelar, y traslado al centro de recogida que tenga previsto, de cualquier perro considerado potencialmente peligroso, cuando su propietario no cumpla con las medidas contenidas en la presente Ordenanza, sin perjuicio de las sanciones económicas que pudieran caber.

EK\CV GAO-I-2018-06127

*41. artikulua. Garraioa.*

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien garraioa animalien ongizateari buruzko berariazko araudiari jarraituz egin beharko da, eta egoerak eskatutako zuhurtasuneko neurriak hartu beharko dira, garraioaldian eta zamalanetan pertsonen, ondasunen eta beste animalia batzuen segurtasuna bermatzeko.

III. TITULUA

ANIMALIEN ALDI BATERAKO MANTEN TZEAZ ARDURATZEN DIREN ESTABLEZIMENDUENTZAKO ARAUAK

*42. artikulua.*

Titulu honen barruan sartzen dira:

a) Hazkuntza eta hezkuntza zentro eta aterpetxeak.

b) Animaliak saltzeko lokalak.

c) Albaitaritzako kontsultategiak, klinikak eta ospitaleak.

d) Udalerrietako aldi baterako jarduerak (zirkuak, zoo ibiltariak).

*43. artikulua.*

Jarduera horiek guztietarako udal lizentzia beharko da, eta lizentzia hori sailkatutako jardueren araudian ezarritakoaren araberakoa izango da.

I. KAPITULUA. HAZKUNTZA ZEIN HEZKUNTZA ZENTROAK ETA ALDI BATERAKO ATERPETXEAK

*44. artikulua.*

Hazkuntza zentroek, hezkuntza zentroek eta animalien egoitzek animaliaren sarrera eta irteeren erregistro liburua eduki beharko dute. Liburua arlo honetan eskumenak dituzten osasun agintarien esku egongo da eta baita Udalaren esku ere.

*45. artikulua.*

Eraikuntzek, instalazioek eta ekipoek giro garbia sortu beharko dute, bertan dauden animaliak babestuko dituzte eta egin behar izaten diren jarduera zoo-sanitarioak erraztuko dituzte.

Halaber, animaliak erraz manipulatzeko aukerak eman beharko dira eta animalien izaerari egokituta egon beharko dute, hartara animaliei bizi baldintza egokiak eskaintzeko.

*46. artikulua.*

Zentroek barruko saneamendu sarea eduki beharko dute eta gorozkiak zein ur zikinak desagerrarazteko neurri zuzentzaile egokiak edukiko dituzte, arlo horretako araudiak jasotakoaren araberakoak, osasun publikoan zein inguruko osasun egoeran egon daitezkeen arriskuak gutxitzeko.

Zentroetan edateko ura egon beharko du, bertan dauden animaliek zein pertsonek edan dezaten.

*47. artikulua.*

Zentroetako esparruak, lokalak zein kaiolak erraz garbitu eta desinfektatzeko moduan eta materialekin eraikiko dira. Esparru horiek gutxienezko azalera izango dute, animaliaren tamainaren araberakoa izango dena, animaliaren ongizatea bermatzeko.

*48. artikulua.*

Lokalak, animaliekin kontaktuan dauden tresnak eta animaliak garraiatzeko ibilgailuak, halakorik balego, garbitu eta desinfektatzeko tresnak zein baliabideak eduki beharko dituzte.

*49. artikulua.*

20 animaliako kaiola bat eduki beharko dute gutxienez, gaixorik dauden animaliak eta gaixorik dauden susmoa dagoe-

*Artículo 41. Transporte.*

El transporte de animales potencialmente peligrosos habrá de efectuarse de conformidad con la normativa específica sobre bienestar animal, debiéndose adoptar las medidas precautorias que las circunstancias aconsejen para garantizar la seguridad de las personas, bienes y otros animales, durante los tiempos de transporte y espera de carga y descarga.

TÍTULO III

NORMAS PARA ESTABLECIMIENTOS DEDICADOS AL MANTENIMIENTO TEMPORAL DE ANIMALES

*Artículo 42.*

Quedan incluidos dentro de este Título:

a) Centros de cría, adiestramiento y albergues.

b) Locales de venta de animales.

c) Consultorios, clínicas y hospitales veterinarios.

d) Actividades temporales en los municipios (circos, zoos ambulantes).

*Artículo 43.*

Estas actividades deberán tener la correspondiente Licencia Municipal en los términos que determine en su caso la normativa reguladora de actividades clasificadas.

CAPÍTULO I. CENTROS DE CRÍA, ADIESTRAMIENTO Y ALBERGUES TEMPORALES

*Artículo 44.*

Los criaderos, centros de adiestramiento y residencias llevarán un Libro de Registro de entrada y salida de animales, el cual estará a disposición de las Autoridades Sanitarias competentes y municipales.

*Artículo 45.*

Las construcciones, instalaciones y equipos permitirán un ambiente higiénico, protegerán a los animales albergados y facilitarán las necesarias acciones zoosanitarias.

Garantizarán, asimismo, una adecuada manipulación de los animales y unas condiciones de vida aceptables de acuerdo con la naturaleza de los mismos.

*Artículo 46.*

Poseerán red de saneamiento interior, dotada de las medidas correctoras adecuadas que faciliten la eliminación de excrementos y aguas residuales, según lo estipulado en la reglamentación sectorial, y que aminoren los riesgos que puedan causar tanto en la salud pública como en la higiene ambiental.

Dispondrán de agua potable para el consumo de las personas y animales que se hallen en el centro.

*Artículo 47.*

Los recintos, locales y jaulas se construirán en la forma y con los materiales que faciliten la fácil limpieza y desinfección. Estos recintos dispondrán de una superficie mínima, dependiendo del tamaño del animal, que garantice el bienestar del mismo.

*Artículo 48.*

Dispondrán de útiles y medios de limpieza y desinfección de los locales y de utensilios que puedan estar en contacto con los animales y, en su caso, de los vehículos destinados a su transporte, cuando éste sea necesario.

*Artículo 49.*

Dispondrán, como mínimo de una jaula por cada 20 animales, para el aislamiento, secuestro y observación de animales enfer-

EK\CV GAO-I-2018-06127

nean, bertan isolatu, bahitu eta behatzeko. Kaiola horiek erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira. Era berean, animalien gorpuak eta material kutsa garriak ezabatu edo desagerrarazteko bitarteko egokiak eduki beharko dituzte.

*50. artikulua.*

Zentro hauek garbitasun eta profilaxi programa definitu bat egin beharko dute albaitari tekniko batek oniritzia emanda, eta honako hau jasoko du gutxienez: Behar den bakoitzean eta, gutxienez, sei hilabetean behin, animaliekin kontaktuan dauden materialak eta lokalak sakon desinfektatuko direla eta intsektuen eta arratoien kontra fumigatuko direla.

Albaitari ikuskatzaile ofizialek instalazioak zein bertako animalien egoera ikuskatu ondoren osasunaren eta garbitasunaren aldetik akatsen bat ikusten badute, jardueraren titularrei akatsak zuzentzeko behar diren neurriak hartzeko eskatuko diete.

II. KAPITULUA. ANIMALIAK SALTZEKO LOKALAK

*51. artikulua.*

Animaliak saltzen dituzten establezimenduek albaitari aholkulari bat eduki beharko dute. Albaitari-aholkularia animalien sarrera eta irteerako erregistro-liburuaz arduratuko da, eta honako hauek ere jaso beharko dituzte bertan: mota, arraza, adina, jatorria, inportazio-baimenaren zenbakia, sarrera eta irteerako data, animaliaren helburua eta bestelako datu interesgarriak. Liburuak Udal Agintzaritzaren esku egon beharko du.

Bizirik dagoen animalia saltzen duenak animaliaren jatorria, ezaugarriak eta osasun egoera jasotzen dituen agiri bat eman beharko dio erosleari. Edonola ere, nahiz eta saltzaileak agiri hori eman, animalia salmentaren unean detektatu gabeko gaixotasunen bat inkubatzen ari bazen, saltzaileak horren erantzukizuna izango du.

*52. artikulua.*

Animaliak saltzen dituzten lokaletako esparru, kaiola edo bestelako tokiak egokiak izan beharko dira, bertan erakusgai dauden animalien egoera egokia izan dadin.

*53. artikulua.*

Inoiz ere ezingo da babestua dagoen faunako animaliarik komertzializatu.

III. KAPITULUA. ALBAITARIEN KONTSULTATEGIAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK

*54. artikulua.*

Animalia txikientzako kontsulta klinikoak eta osasun tratamenduak eskaintzen dituzten anbulatorio izaerako establezimenduak, honela sailkatuko dira: Albaitari Kontsultategia, Albaitari Klinika eta Albaitari Ospitalea.

1. Albaitari Kontsultategia: Gutxienez itxarongela eta kontsulta gela eduki behar ditu eta bertan sendaketa eta kirurgia ebakuntza txikiak egin daitezke.

2. Albaitari Klinika: Gutxienez honako hauek eduki behar ditu: Itxarongela, kontsulta gela, ebakuntzak egiteko gela, instalazio erradiologikoak, laborategia eta suspertze atalak.

3. Albaitari Ospitalea: Albaitari Klinikek dituztenez gain, ospitaleratze gela ere eduki behar du, eta bertan 24 orduko osasun zainketa eta ospitaleratuta dauden animalien etengabeko zainketa ziurtatu behar dute.

*55. artikulua.*

Establezimendu horiek guztiek udal lizentzia beharko dute, eta isolatuta dauden eraikinetan edo beheko plantan dauden

mos o sospechosos de enfermedad que se pueda limpiar y desinfectar con facilidad. Dispondrán de igual forma, de medios adecuados para la destrucción o eliminación higiénica de cadáveres de animales y materias susceptibles de causar contaminación.

*Artículo 50.*

Elaborarán un programa definido de higiene y profilaxis respaldado por un técnico veterinario, que contemplará siempre que sea necesario, y como mínimo cada seis meses, una desinfección, desinsectación y desratización a fondo de los locales y materiales en contacto con los animales.

Los Inspectores Veterinarios Oficiales, a la vista del estado de las instalaciones y de los animales albergados, requerirán a los titulares de la actividad para que se adopten las medidas necesarias que subsanen las deficiencias higiénico - sanitarias observadas.

CAPÍTULO II. LOCALES DE VENTA DE ANIMALES

*Artículo 51.*

Los establecimientos dedicados a la venta de animales contarán con un veterinario asesor, que se responsabilizará del libro de registro de entrada y salida de animales, en el que se detallará la especie, raza, edad, procedencia, el número del permiso de importación, fecha de entrada y salida, destino y cuantas observaciones resulten de interés, estando a disposición de las Autoridades Municipales.

El vendedor de un animal vivo, tendrá que entregar al comprador un documento donde se reflejen la procedencia y características del animal, así como certificado de su estado sanitario. Este certificado no excusará al propietario del establecimiento de su responsabilidad frente a enfermedades de incubación no detectadas en el momento de la venta.

*Artículo 52.*

Los locales que se dediquen a la venta de animales dispondrán de recintos, jaulas o contenedores capaces de albergar en condiciones óptimas a los animales expuestos.

*Artículo 53.*

En ningún caso se podrán comercializar ejemplares de animales pertenecientes a la fauna protegida.

CAPÍTULO III. CONSULTORIOS, CLÍNICAS Y HOSPITALES VETERINARIOS

*Artículo 54.*

Los establecimientos dedicados a consultas clínicas y aplicación de tratamientos sanitarios a pequeños animales con carácter ambulatorio, se clasificarán en Consultorio Veterinario, Clínica Veterinaria y Hospital Veterinario.

1. Consultorio Veterinario: Es el conjunto de dependencias que comprenden, como mínimo, una sala de recepción y una sala para consulta y pequeñas intervenciones de cura y cirugía.

